

Usurbilgo Udala



USURBILGO UDALEKO ZERGAK IKUSKATZEKO ETA LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Honako plegu hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuaren xedea izango da USURBILGO UDALEKO UDAL ZERGAK IKUSKATZEKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA EMATEA, baldintza teknikoaren pleguan ezarritako zehaztapenen arabera. Pleguek, bestalde, kontratu izaera edukiko dute.

2. EPEA

Kontratuaren iraupena bi (2) urtekoa izango da. Kontratu hau, gehienez ere, bi aldiz luzatuko da, eta luzapen bakoitzak urtebeteko iraupena izango da. Horretarako, jarraian zehaztutako prozedura jarraituko da. Udalak berariazko adostasuna adierazi beharko du, eta kontratuak, guztira eta luzapenak barne, ezin izango du lau urte baino gehiago iraun.

Kontratua luzatzea, Kontratazio Organoak berariaz erabakiko du, bere kasuan. Horretarako, baldintza plegu honetan aurikusitako jardunbidea jarraituko da:


- Esleipendunak kontratua luzatzeko eskaera egingo du, kontratuaren indarraldia amaitu baino bi hilabete aurretik, gutxienez, luzapen honetan interesa badu.
- Idazkaritza eta Kontuhartzailtzako udal zerbitzu teknikoetako arduradunek zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipen-proposamenari buruzko txostenak egingo dituzte, bakoitzari dagokion arloan.
- Kontratazio-organoak luzapenari buruzko erabakia hartuko du Kontratua berariaz luzatzea erabakitzen ez bada, indarraldia luzatu ez dela ulertuko da, 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa ezin izango da hasiera batean kuantifikatu, eta egingo diren ikuskatze jardueren eta horietatik lortzen diren emaitzen arabera izango da, atal honetan adierazitakoari jarraiki. Ez da inolako zenbatekorik bermatuko zerbitzua eskaintzeagatik. Kontratuak urtean izango duen gutxi gorabeherako aurrekontua 49.000,00 eurokoa izango da, BEZ sartu gabe. Hori horrela aurrekontu zenbatetsia 196.000 eurokoa izango da BEZ sartu gabe.

Ondorengo gehienezko lizitazio tipoak ezarri dira. Lizitatzailleek, bestalde, zenbateko horiek hobetu ahal izango dituzte egiten dituzten eskaintzetan, beherapena eginda

1. "Egiaztatua eta ados" delako zerga egoerak irekitzeko, hasteko, frogatzeko eta egiaztatzeko jarduerak, baldin eta egindako jardueren edota ikuskapenen bidez



Usurbilgo Udala



ikuskatutako subjektu pasiboetako zerga-likidazioak egiteko aukera ematen duten bestelako oinarri zergapegarriak aurkezten ez bada: 30 €, BEZ sartu gabe, ikuskatutako espediente bakoitzeko.

2. Ezkutuko, aitortu gabeko edo egoera irregularrean dauden oinarri zergapegarriak aurkitzen diren espedienteen kasuan, baldin eta horri esker zerga-likidazioekin eta horiei dagozkien zigorrokin bukatzen diren ikuskapen aktak egiteko espedienteak tramitatzeo aukera badago, eta ondorioz, zergadunak adostasuna adierazten badu edo izaera irmoa duen ezadostasun-akta egiten badu,

- a) Ikuskapen prozeduran aurkitu eta zuritu diren zenbatekoek (kuotak gehi zigorrak gehi interesak), errolda fiskalean zergadunaren datuak aldatzeko edo zergaduna erroldan sartzeko aukera ematen dutenean eta aldizka sortzen eta kobratzen diren eskubide publikoko zergak eta bestelako sarrerak direnean: aurkitu eta benetan kobratu diren zenbatekoen %60ra arte, BEZ sartu gabe.
- b) Ikuskatze prozeduran, egitate zergapegarri isolatuak, banaka eta errepikatu gabe sortzen direnak direlako zergaduna errolda fiskalean sartzeko aukerarik ematen ez duten zenbatekoak aurkitu eta zuritzen direnean: aurkitutako zenbatekoen %30 arte BEZ sartu gabe.

2.a) eta 2.b) ataletan aurreikusitako ordainsariei dagokienean, uste izango da BEZari dagozkion zerga kuotak sartu gabe daudela; hala ere, kontratistak aurkeztutako fakturretan kuota horiek aparteko partida gisa jasanarazi beharko ditu.

Ondorio guztietarako, uste izango da eskaintzetan eta onartutako prezioetan sartuta daudela enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuak betetzeko egin beharko dituen gastu guztiak: hala nola, orokorrak, finantzarioak, ongintzazkoak, aseguruak, materialak eta garraioak, haren ardurapeko langile teknikoek ordainsariak, tasak eta era guztietako zergak; eta betiere, kontratua indarrean dagoen bitartean ezar edo alda daitezkeen guztiak. Horren ondorioz, gastu horiek ezin izango dira aparteko partida gisa jasanarazi.

4. FINANTZAZIOA

Kontratu honen finantzazioa 1.2000.227.611.00.01 2012 partidaren kontura izango da.

5. ORDAINTZEKO ERA

Udalak hiruhilero ordainduko dio esleipendunari aurreko hiruhilekoan eskaini dituen laguntza zerbitzuei dagokien faktura, aldeztu aurretik faktura aurkeztu eta dagokion onarpena jaso ondoren. Hiruhileko faktura hauen edukia, kontratu honen xede diren lanak egiteagatik, benetan kobratu denari buruzko egiaztagiria oinarritzat hartuta egingo da.



Usurbilgo Udala



Ziurtagiria Udalaren kontuhartzaitza zerbitzuek egin beharko dute. Fakturak, bestalde, baldintza orri honen hirugarren baldintzan adierazitako unitateetan banakatu beharko dira.

Behin faktura onartu ostean, ordainketa azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 216. artikuluan (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua) legez ezarritako epeetan egingo da.

Era berean, enpresa esleipendunak kontratu honen eragin esparruan sortzen den zerga-likidazioen baten zenbatekoa kobratu ondoren, horri buruzko errekurtsioa aurkeztzen badu, edo administrazio edo auzi arloko instantziaren batek likidazioa ezeztatzen badu, likidazio horri dagokion zenbatekoa hurrengo hiruhilekoan egingo den fakturan murriztu egingo da, edo zenbatekoa itzuli egingo da, dagokion eran.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren 89-94 artikuluetan ezarritakoaren arabera prezio berrikusketa **3. baldintzako 1.) atalean** ageri den prezioari **bakarrik** ezarriko zaio: hain zuzen ere, “Egiaztatua eta ados” delakoarekin amaitzen diren zerga egoerak irekitzeko, hasteko, frogatzeko eta egiaztatzeko egiten diren jardueri, baldin eta egiten diren jardueren edota ikuskapenen ondorioz, ikuskatutako subjektu pasiboetara zerga-likidazioak egiteko aukerarik ematen ez badute.”

Kontratuaren bigarren urtetik aurrera, berrikusketa egiterako orduan, ondorengo formula ezarri beharko da: **Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumo Prezioen Indizeak kontratua sinatzen den hilabeteari dagokion aurreko urte naturaleko KPIrekin alderatuta izan duen aldaketaren %85.**

7. BERMEAK


Behin-behineko bermea

Ez da eskatuko

Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztu duen lizitatuak, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, 9.800 eurokoa.

Berme hori jartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, eskaintza ekonomiko egokienari buruzko jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bermea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan ezarritako era guztietan jarri ahal izango da.



Usurbilgo Udala



Bermea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan ezarritakoaren arabera itzuliko da; behin bermea jartzeko epea igaro ostean, baldin eta esleipendunak kontratua dela-eta hartu dituen obligazio guztiak betetzen baditu.

8. KONTRATUA BETETZEA.

Kontratatik berak izango du kontratua betetzeko ardura.

Kontratua plegu honetan jasotako baldintzen arabera beteko da, eta hala badagokio espedienteari erantsitako baldintza teknikoen arabera. Kontratua Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean burutuko da. Administrazioak eskumen hauek erabiliko ditu, bai idatziz, bai ahoz.

Kontratatari edo honen ardurapeko pertsoneri egotz dakizkiekeen egintzak edo hutsegiteak direla medio, kontratu honen bilakaera egokia eragozten baldin bada, Administrazioak egoki iritzitako neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, kontratua behar bezala bete dadin lortu ahal izateko.

9. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK


Kontratu honen xede den zerbitzua emateko hartuko dituen langileak direla-eta, kontratatik lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta prebentzio arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Enpresa esleipendunak kontratatutako langileek inola ere ez dute lan harremanik izango Usurbilgo Udalarekin, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta haren langileen arteko betebeharreri dagokienean. Era berean, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango arestian aipatutako araudia eta betebeharrak betzen ez badira.

10. KONTRATUA BETETZEN DEN BITARTEAN BESTEEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA.

Kontratatik izango du kontratua betetzeko beharrezkoak diren egintzen ondorioz sortutako kalte galeren gaineko erantzukizuna, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 214. artikulua dioenez.

Hori dela eta, eskaintza ekonomiko egokienari buruzko jakinarazpena jaso eta 10 laneguneko epean, aseguru poliza baten kopia aurkeztu beharko du. Polizaren bermearren muga, gutxienez, 600.000,00 eurokoa izango da. Era berean, polizaren ordainagiria aurkeztu beharko du. Polizak, kontratuak berez dakartzan arriskuak estali beharko ditu, eta batez ere, esleipendunaren langileek, enplegatuek, ardurapekoek, egindako lanen



Usurbilgo Udala



ondorioz, beste pertsona batzuei edo Udalari eragindako kalteen ondorioz izan dezakeen erantzukizun zibila.


11. ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Onartutako Baldintza Pleguetan ezarritako, eta indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzez gain, esleipendunak honako betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- a) Etenik gabe, zerbitzua eskaintzea. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean gertatzen diren ezbeharreatatik edo gaixotasunengatik, oporreatatik, eta beste arrazoi batzuegatik sortzen diren langileen bajak bete beharko ditu.
- b) Agiriak eta txostenak euskaraz aurkeztu beharko dira. Era berean, beharrezko neurriak hartu beharko dira enpresako langileek Udalarekin eta gainerakoekin euskaraz jarduteko gaitasuna izan dezaten. Gainera, hizkuntzaren inguruan Preskripzio Teknikoen Baldintza Orrietan zehaztutakoa bete beharko da.
- c) Era berean, Udal honekin zerikusirik ez duten hirugarrenak direla eta egin dituen jarduerak isilean izan beharko ditu.

Horiek horrela, lanak egiteko datu pertsonalak jasotzen dituen fitxategiren bat erabili behar baldin bada, eta Udalak, zuzenean edo zeharka, fitxategi hori enpresa esleipendunari lagatzen badio, enpresak fitxategiari ematen zaion erabileraren ardura izango du, eta horren ondorioz, Datuen Babesari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa bete beharko da, besteak beste 12. artikuluan xedatutakoa:


1. Ez da datuen komunikaziotzat joko, datuak tratatzeko ardura duenak hirugarren bati datuak uztea, baldin eta hirugarren honek datuak tratatzeko ardura duenari zerbitzu bat emateko behar baditu.
2. Hirugarrenen datuak erabili ahal izateko hitzarmen bat egin beharko dute, non, idatziz edo beste eraren batean, hitzarmen hori gauzatu dela egiaztatzeko aukera izango den, eta horretaz gain, kontratuaren beraren edukia egiaztatzeko aukera ere izan beharko da. Kontratuan berariaz ezarri beharko da tratamenduaren ardura duenak tratamenduaren erantzukizuna duen pertsonak emandako argibideei jarraiki tratatuko dituela datu horiek, ez dituela erabiliko kontratu horretan ageri ez den xederen baterako, eta ez dizkiela emango, ezta gordeta edukitzeko ere, beste pertsona batzuei. Kontratuan, halaber, Lege honen 9. artikuluan aipatzen diren segurtasun neurriak, datuen tratamenduaren arduradunak bete behar dituenak, zehaztuko dira. Horretarako, datuak tratatzeko ardura dutenek, edo datu horiek eskuratu ahal dituztenek, beharrezkoak diren segurtasun eta babes neurriak gorde beharko dituzte, hirugarrenen datu horiek erabili edo eskuratu ezin ditzaten. Horretaz gain beharrezkoak diren gakoak eta baliabideak jarri beharko dituzte gordetako datuak eskuratzeko aukerarik egon ez dadin. Fitxategiek segurtasun neurriak izan beharko dituzte, kontratatutako zerbitzuarekin zerikusirik ez duten pertsonen datuak eskuratu eta erabili ez ditzaten.



Usurbilgo Udala



3. Behin kontratua eskaini ostean, datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira, edo bestela, Udalari itzuli beharko zaizkio. Horretaz gain, era berean jardun beharko da tratatu beharreko datu pertsonalak dituzten euskarri edo agiri guztiekin.
4. Datuak tratatzeko ardura duenak, datu horiek beste helburu batekin erabiltzen baditu, ezagutzera ematen baditu, edo datu horiek erabilia, kontratuaren zehaztapenak betetzen ez baditu, trataera horren erantzuleztat joko da, eta berak egin dituen arau-hausteen gaineko erantzukizuna izango du.
 - d) Hiruhilero, zerbitzuaren bilakaerari buruzko txostena aurkeztu beharko du. Bertan, egindako jardueren egoera zehaztu beharko da eta zuritutako zenbatekoa ere bai; horretaz gain, kontratatutako laguntza hobetzeko proposamen guztiak jaso beharko dira.
 - e) Enpresa esleipendunak zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren baliabide materialak edo giza baliabideak jarri beharko ditu.
 - f) Kontratuaren betebeharrak betetzea, eta halaber, sor daitezkeen arazoak konpontzea. Hori dela-eta, beharrezkoa den kasuetarako koordinazio arduradun (aholkularia) bat izendatuko du. Honek, kontratistaren ordezkari izateko ahalmena edukiko du.
 - g) Kontratuan bertan ezar daitezkeen neurriez gain, enpresa kontratistak, kontratatzen duen Administrazioarekin zerikusirik ez duten hirugarrengoei ez die datu pertsonalak erabiltzen utziko. Eta betebeharrak hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izango da. Isilpeko datuak dituzten fitxategiak mugatuta izan beharko dituzte sarrera gakoak.
 - h) Ikuskapen prozeduretan, kontratistak Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotako araudia, hori garatzen duen eta indarrean dagoen araudia eta Udal Ordenantzak bete beharko ditu.
 - i) Ekitaldi bakoitzean zergak Ikuskatzeko Planari buruzko proposamena aurkeztu beharko du, indarrean dagoen araudiarekin bat datorrena; eta uneoro, horri buruz ezarrita dagoen araudia bete beharko du.
 - j) Izaera ofiziala duten Jakinarazpenak eta gainerako agiriak egiterako orduan, Udalak emandako armarrria edota logotipoa erabili beharko dira. Agiriok Udalak onartu beharko ditu, dagokionaren arabera.
 - k) Usurbilgo Udalari berehala eman beharko zaio kontratatutako zerbitzua eskaintzerakoan sortzen diren gorabeheren berri.



Usurbilgo Udala




- l) Kontratatutako zerbitzua eskaintzeko izendatutako langileen alden eta bajen berri eman beharko du, bajak gertatu eta zortzi egunen buruan.
- m) Zerbitzua eskaintzean lortutako emaitzen txostena aurkeztu beharko du; hala ere, Udal administrazioak, edozein unetan, zerbitzua ikuskatzeko ahalmena izango du. Halaber, esleipendunak hainbat datu emango dizkio Udalari: datu estatistikoak, asistentziari buruzko datuak eta kontabilitateari buruzko datuak.
- n) Baldintza plegu honetan zehaztutako eran eta zenbatekoan behin-betiko fidantza jarri beharko du, eta dagokionean, fidantza osatu egin beharko du.
- o) Usurbilgo Udalak agintzen dion egunean, kontratua administrazio agiri batean formalizatu beharko ditu.
Usurbilgo Udalak inola ere ez du erantzukizunik izango kontratatutako langileekin edo enplegatuekin dituen betebeharrak betetzen ez badira. Aitzitik, erantzulea kontratista izango da.

Horretaz gain, kontratistak GAOko iragarkiei dagozkien fakturak ordaindu beharko ditu.

12.-UDALAREN BETEBEHARRAK

- Lanpostu bat egokitzea, ikuskapen lanak egiten lagunduko duen pertsonak edo pertsonak behar bezala lan egin ahal izan dezaten. Era berean, Udalean xede horretarako jarriko den lokalera sartzen utziko zaie, zerbitzua egunez eskain dezaten.
- Zergak ikuskatzeko beharrezkoak diren tresnak jartzea (telefonoa, faxa...).
- Zerga ikuskapenaren berariazko funtzioak egingo dituen pertsona (aktuariora) izendatzea.
- Benetan bildutakoaren arabera hiruhilero egiten diren fakturei dagozkien zenbatekoak legez ezarritako epean ordaintzea. Horretarako, Udalaren zerbitzuek faktura horiek zuzenak direla egiaztatuko dute, eta organo eskudunak fakturak onartuko ditu.
- Kontratatutaren ikuskapen jardueren ondorioz benetan izan diren diru-sarrereri buruzko egiazko informazioa kontratistari berari helaraztea.
- Udalak edo gainerako administrazioek udalerriko zergapekoei buruz izan dezaketen informazioa helaraztea, batik bat, fitxategi informatikoetan. Udalak emandako edo utzitako datuak behar bezala zaindu beharko ditu kontratistak, eta ezin izango ditu kontratu honen xede ez diren beste zeregin batzuetarako erabili.



Usurbilgo Udala



13. KONTRATUA ALDATZEA

Herri intereseko arrazoiak tarteko, Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuei Buruzko Legearen Testu Bateratuaren 107. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen baldin bada, eta horrekin lizitazioaren eta esleipenaren oinarrizko baldintzak aldatzen ez badira.

14. HARRERA ETA BERMERAKO EPEA

Kontratuaren xede den zerbitzua eskaintzeari utzi eta, gehienez ere, hilabeteko epean harrera egiteko egintza formala eta positiboa egingo da. Harrera egiteko, zerbitzuari buruzko behin betiko txostenaren kopia aurkeztuko da.

Era berean, urtebeteko epea ezarriko da, harrera formala egiten den egunetik aurrera. Epe hori berme bezala ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoa betetzeko.

Bermerako epe horretan, kontratistak egindako lanetan edo eskainitako zerbitzuetan egon daitezkeen akatsen edo hutsegiteen gaineko erantzukizuna izango du.

Epe hori igarota, Administrazioak eragozpenik ez badu, kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.

Bermea itzultzeko, ezinbesteko baldintza izango da kontratu honetako zerbitzuaren esparruan kobratu eta sortu diren zerga likidazioekin zerikusia duten errekurtsioak ebazteko beharrik ez izatea.

15. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua betetzeko epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzen ez baditu, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan bermea galdu egingo da. Horretaz gain, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,20 euro kontratuaren prezioan jasotako 1.000,00 euroko.

Berandutza dela eta ezartzen diren zigorrak kontratuaren ehuneko bostera iristen diren bakoitzean, Organo Kontratatzaileak eskumena izango du kontratua bertan behera uzteko; edo, zigor berriak jarrita, kontratuarekin jarraitzea erabakitzeko.

Zerbitzua eskaintzerakoan akatsak egiten badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10aren pareko zigorra jarri ahal izango du.



Usurbilgo Udala



Zigorak Usurbilgo Udalak jarriko ditu, interesdunari entzunaldia eskani ondoren, eta kontratuaren ardura duen teknikariaren proposamenari jarraiki.

16. KONTRATUA DEUSEZTATZEKO ARRAZOIAK

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308 artikuluetan ezarritako arrazoiak kontratua deuseztatzeko arrazoi izango dira.

Era berean, kontratistak ezarritako betebeharrak, plegu honetan jasotzen direnak, ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izango da, baldin eta horren ondorioz, udal ogasunari kalte larria eragiten dizkieten atzerapenak gertatzen badira espedienteak tramitazerako orduan. Udalari kalte larria eragiten dioten gainerako kasuetan ere modu berean jardungo da.

Kontratistak errua duelako kontratua deuseztatzen baldin bada, fidantza konfiskatu egingo da. Gainera, eragindako kalte-galeren ondorioz, kontratistak kalte-ordaina eman beharko dio Administrazioari, behin betiko bermea gainditzen duen zenbateko guztian.

17. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioak eskumena izango du kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeko orduan sor daitezkeen zalantzak argitzeko, herri interesa dela-eta kontratua aldatzeko, kontratua bertan behera uzteko erabakia hartzeko eta erabaki horren eraginak zehazteko; betiere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusian ezarritako baldintzen eta eraginen barruan.


II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

18. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA ERA

Kontratu honen esleipena prozedura irekiaren bitartez egingo da, eta esleipenerako hainbat irizpide izango dira kontuan. Kontratua eskaintza ekonomiko egokienari esleituiko zaio, eta horretarako, aurretiazko tramitazioa duen lehiaketari dagokion era erabiliko da.

Hona hemen kontratua esleitzeko kontuan izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik garrantzia gutxien duenera. Era berean, irizpide bakoitzari dagokion balorazioa ere zehazten da:

1.Eskaintza ekonomikoa: 63 puntu.



Usurbilgo Udala



Aurrekontua honela xehakatuko da:

- a) Ikuskapen prozeduran aurkitu eta zuritu diren zenbatekoek, kuotak gehi zigorrak gehi interesak, errolda fiskalean zergadunaren datuak aldatzeko edo zergaduna erroldan sartzeko aukera ematen dutenean eta aldizka sortzen eta kobratzen diren eskubide publikoko zergak eta bestelako sarrerak direnean: (lizitazio prezioa: aurkitu eta benetan kobratu diren zenbatekoen %60ra BEZ sartu gabe) 30 puntura arte.

0,5 puntu emango da %1eko jeitsiera bakoitzagatik

- b) Ikuskatze prozeduran, egitate zergapegarri isolatuak, banaka eta errepikatu gabe sortzen direnak direlako zergaduna errolda fiskalean sartzeko aukerarik ematen ez duten zenbatekoak aurkitu eta zuritzen direnean: (lizitazio prezioa aurkitutako zenbatekoen %30 arte BEZ sartu gabe) 30 puntura arte.

1 puntu emango da %1eko jeitsiera bakoitzagatik


- c) "Egiaztatua eta ados" delako zerga egoerak irekitzeko, hasteko, frogatzeko eta egiaztatzeko jarduerak, baldin eta egindako jardueren edota ikuskapenen bidez ikuskatutako subjektu pasiboei zerga-likidazioak egiteko aukera ematen duten bestelako oinarri zergapegarriak aurkezten ez bada: (lizitazio prezioa 30 €, BEZ sartu gabe ikuskatutako espediente bakoitzeko) 3 puntura arte.

0,10 puntu emango da 1 euroko jeitsiera bakoitzagatik

2. Txosten teknikoa: 37 puntu.

Kontuan hartuko dira hurreneko puntuak.

- Txostenean egingo diren lanen deskribapena jasoko da, eta horretaz gain, lanerako metodoak eta planak, koordinaziorako mekanismoak eta horien maiztasuna, e.a. zehaztu beharko dira pleguak direla-eta egin den proposamenaren egokitasuna baloratu ahal izateko: 20 puntu.
- Giza baliabideak ere aipatu beharko dira. Zerga kudeaketan aritzeko langileek horren inguruko ezaguera tekniko eta juridiko zehatzak izan behar dituzte eta hori dela eta, memoriarekin batera ezaguera horri buruzko atala aurkeztu beharko da. Horregatik, langileen titulazioa, curriculum, prestakuntza eta kualifikazioa, eta zerbitzuaren koordinatzaile izango den pertsonaren datuak (aholkularia) eman behar izango dira: 15 puntu.
- Zerbitzuari atxikitako egokiak diren baliabide materialak deskribatu beharko dira: 2 puntu.



Usurbilgo Udala



19. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratatzeko prozedura honetan pertsona naturalek edo juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta euren gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasun osoaren jabe badira; eta baldin eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo lan arlokoa egiaztatzen badituzte. Era berean, ez dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehaztutakoaren arabera, kontratatze debekuren batean sartuta egongo. Kaudimena (klasifikazioa) 20. baldintzan zehaztutako bitartekoen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, berez edo baimendutako pertsonaren baten bidez parte hartu ahal izango dute; horretarako, askietsitako ahalordea aurkeztu beharko dute. Pertsona juridikoren baten ordezkari gisa, pertsona juridiko hori osatzen duen kideren bat aurkezten baldin bada, agiri bidez, horretarako ahalmena baduela egiaztatu beharko da. Bai kasu batean, bai bestean, ordezkariari arestian zehaztutako kontratatze ezgaitasunek eragingo diote.

Honetaz gain, lizitazio gilearen helburua izan beharko da kontratu honen helburuarekin bat egiten duten jarduerak egitea; eta era berean, lan hori betetzeko adinakoa izango den gaitasun pertsonal eta materiala edukitzea.

Enpresariak, halaber, enpresa edo lanbide arloko gaikuntza izan beharko dute. Horrela bada, gaikuntza hori jarduera egiteko edo kontratuaren xede den zerbitzua eskaintzeko eska daitekeena izango da.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honi dagokion espedientea, baita horri erantsitako dokumentazio teknikoa ere www.usurbil.net webgunean aztertu ahal izango dira, lizitazioari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte. Arestiko web gunean pleguak eskuratu ahal izango dira, eta hala badagokio, dokumentazio osagarria ere bai.

Proposamenak, berriz, Usurbilgo Udalean aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera eta 08:00etatik 14:30etara. Horretarako, hamabost (15) egun naturaleko epea izango da, lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna baldin bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Epe horretatik kanpo aurkezturiko proposamenak ez dira onartuko, Postetxean epea bukatu aurretik utzi direla egiaztatzen bada ere ez. Udalean epez kanpo jasotako proposamenak onartzeko, epe barruan postetxean sartzeaz gain, postetxera zein egunetan eraman den egiaztatzen duen ziurtagiria bidali beharko zaio kontratazio organoari, fax edo telegrama bidez, epe amaitu aurretik. Hau da, epe barruan postetxean



Usurbilgo Udala



uzteaz gain, postetxean utzi dela jakinarazi beharko zaio Udalari, epea amaitu aurretik goian zehazten den moduan.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta proposamena, kontratazio organoak adierazitako epea baino beranduago jasotzen bada, proposamena ez da onartuko. Hala eta guztiz ere, dokumentazioa adierazitako data hori igaro eta hamar egun naturaleko epean proposamena jasotzen ez baldin bada, proposamena ez da inola ere onartuko.

Lizitatuzaileek hiru kartazal itxi aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C). Kartazal bakoitzaren kanpoaldean honako inskripzio hau idatziko da. "USURBILGO UDALAREN ZERGA IKUSKATZEKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak adierazi beharko dira, baita proposamena zein izaerarekin sinatzen duen ere. Halaber, kartazal guztiak sinatu egin beharko dira.

"A" kartazalak "KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA" izena edukiko du, eta bertan, ondorengo dokumentuak sartuko dira:

- a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsonaren edo erakunderen baten izenean jarduten badu, notarioak egindako ahalordea.
- b) Eskaintza egiten duena pertsona juridikoa baldin bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa edo aldaketa eskritura eta identifikazio fiskalerako zenbakia aurkeztu beharko dira, baldin eta, ezar dakioken merkataritza legediaren arabera, inskripzio hori eskatzeko modukoa bada. Inskripzioa eskatzeko beharrik ez badago, jarduteko gaitasuna egiaztatze eraketa eskritura, eraketa agiria, estatutuak edo sorrera agiria aurkeztu beharko dira, eta agiritan, jarduera arautzen duten arauak zehaztuko dira. Eta beharrezkoa izanez gero, horiek dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta egongo dira.
- c) Enpresa atzerritarrek jarduteko gaitasuna badutela egiaztatu beharko dute; horretarako, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako eran jardun beharko dute.
- d) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehaztutako debekuren batean sartuta ez dagoela azaltzen duen berriarazko aitortpena egin beharko da (I. ERANSKINA). Hori dela-eta, aitortpenean, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla jaso beharko da, baldin eta azken bi inguruabar horien gaineko egiaztapenak aurkezten ez badira.



Usurbilgo Udala




- e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta egiaztatzeko, alta agiria aurkeztu beharko da, indarrean dagoen ekitaldiari dagokiona. Horren ordez, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren azken errezipoa aurkeztu ahal izango da, eta horrekin batera, dagokion matrikulan baxarik eman ez duela egiaztatzen duen aitortpen erantzule bat.
- f) Kaudimen tekniko egiaztatzeko, enpresak honako sailkapen honetan egon behar dira sailkatuta:
- TALDEA L, AZPITALDEA 2, KATEGORIA A
- g) Enpresari batek baino gehiagok prozeduran parte hartzeko, Aldi Baterako Enpresa-Elkarte bat osatzen badute, elkarte osatzen duen enpresari bakoitzak gaitasuna eta klasifikazioa badituela egiaztatu beharko du, arestian aipatutako puntuetan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, esleipendun baldin badira, formalki, Aldi Baterako Enpresa-Elkarte bilakatzeko konpromisoa azaldu beharko dute. Era berean, ABEE horren kide bakoitzak kontratuaren zein atal beteko duen zehaztu beharko du proposamenean; hartara, enpresa-elkarte osatzen duten guztiek kaudimena badutela egiaztatzeko. Baita ere, ABEEan enpresa bakoitzak duen partehartzea eta ABEEaren ordezkaria zehaztu beharko dira.
- h) Enpresa atzeritarrek edozein motatako Auzitegi eta Epaitegi espainiarren jurisdikzioaren pean jarriko direla adierazten duen aitortpena aurkeztu beharko dute, kontratua dela-eta, zuzenean nahiz zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako. Era berean, aitortu egin beharko dute lizitatuzaileei dagokien atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela.
- i) Lizitaziogile guztiek helbide elektronikoko bat eta fax zenbaki bat eman beharko dute, Administrazioa horiekin guztiekin harremanetan jar dadin edo jakinarazpenak jasotzeko lehenespenezko bide bezala.
- j) Enpresak aurkezten duen aholkulariaren euskara titulua (Baldintza Teknikoen Orrietan zehaztutakoaren arabera). Kartazal honetan **soilik titulua** sartu beharko da, ez CVA edo pertsona horren beste inolako daturik. Titulurik aurkezten ez bada, esleipena egin aurretik aholkulariak euskara azterketa egin beharko du.

Eskatutako agirien jatorrizkoak edo kopiak aurkeztu ahal izango dira, Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta.

Konpultsatu gabeko kopiak aurkeztuz gero, esleipendun gertatuz gero, orijinalak aurkeztu beharko dira.

Otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuaren bidez arautzen den Enpresen Erregistro Ofizialean inskribatutako kontratistek inskripzioa egin izana egiaztatzen duen egiaztageria aurkeztu



Usurbilgo Udala



ahal izango dute, horrek a), b) eta c) hizkiekin identifikatutako idatziak aurkeztetik salbuetsiko ditu. Inskripzioa egin izanaren egiaztegeria aurkeztuz gero, bertan islatzen den egoera aldatu ez denaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

Behin kontratua esleitu, eta errekurtsioak aurkezteko epea igaro ostean errekurtsorik aurkeztu ez baldin bada, proposamenekin batera aurkeztu den dokumentazioa interesdunen esku geldituko da. Hilabeteko epean dokumentazio hori erreklamatzeko ez bada, Udalak suntsitu ahal izango du.

"B" kartazalari "MEMORIA TEKNIKOA" izena jarriko zaio, eta bertan, 18. baldintzaren 2. puntuan aipatutako datuak jaso beharko dira

Kartazal honetan, inola ere, ez dira sartuko proposamen ekonomikoari buruzko datuak, ezta automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen irizpideei dagozkien datuak ere; izan ere, horiek "C" kartazalean sartu beharko dira.

Datu horiek "B" kartazalean sartzen baldin badira, lizitatuzailea prozedura honetatik kanpo geldituko da, eta ez da irekiko berak aurkeztu duen "C" kartazala.

"C" kartazalari "PROPOSAMEN EKONOMIKOA" izena jarriko zaio, eta bertan honako dokumentu hauek sartuko dira:


a) Honako eredu honen arabera proposamen ekonomikoa:

Nik, jaunak/andreak,
..... bizi
(.....PK), eta zenbakidun NANA eta
..... zenbakidun telefonoa ditudan honek, gaitasun juridiko eta jarduteko
gaitasun osoaren jabe izanik, nire izenean, edo
....., bizi den
(..... PK), telefono zenbakia eta
..... NAN edo IFK zenbakia dituen (kontuan izan pertsona fisikoa ala
juridikoa den)(r)en izenean, Usurbilgo
Udalak udal-zergak ikuskatzeko lankidetzeta eta laguntza zerbitzua kontratatzekeo deitu duen
lehiaketaren jakitun izanik, ondorengoa aitortzen dut:

1) Kontratua jarraian zehaztuko diren prezioetan beteko dudala:

----- €, gehi %.....(e)ko BEZari dagozkion €, zerga likidaziorik
sorrarazten ez duen ikuskatutako espediente bakoitzeko.

2) Ondorengo ekitaldietan eragina izango duten aldizkako zergetan aurkitutako,
kobratutako eta irmotutako zenbatekoen %.....portzentailetan.



Usurbilgo Udala



3) Likidazio bakar batean zergetan aurkitutako, kobratutako eta irmotutako zenbatekoen edo ondorengo ekitaldietan eragina izango duten aldizkako zergetan aurkitutako, kobratutako eta irmotutako zenbatekoen %..... portzentailetan

Hori guztiori baldintza teknikoetan ageri diren ezaugarrien arabera. Horiek horrela, uste izango da prezioan kontzeptu guztiak sartuta daudela; baita edozein zerga arlotako zergak, gastuak eta arielak ere. Kontratutako enpresaren industria mozkina ere sartuta dagoela uste izango da.

4) Baldintza Teknikoen Pleguaren, Administrazio Baldintza Berezien Pleguaren eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioaren berri badudala, eta horiek berriaz eta osorik onartzen ditudala.

5) Nik ordezkutzen dudan enpresak betetzen dituela zerbitzua abian jartzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen betebeharrak guztiak.

4) Lan eta zerga arloan araututa dagoena betetzeko hitza ematen dudala.

.....(e)n, 2012.....(e)koaren,(e)an


Sinadura

Proposamen ekonomikoak ez dira onartuko, baldin Administrazioaren ustetan, eskaintza kontuan izateko ezinbestekoa den informazioa jasotzea galarazten duten hutsegiteak, akatsak edo zirriborroak badituzte.

Kontratazio Mahaiak atzera botako ditu aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gainditzen dutenak edo ezarritako eredu nabarmen aldatzen dutenak. Era berean, lizitazioarekin bat ez duten proposamenak bideraezina egiten duen akats edo hutsaltasunen bat duela, Mahaiak proposamena atzera botako du. Horretarako, Kontratazio Mahaiak ebazpen arrazoitua eman beharko du. Ez da atzera botatzeko arrazoi nahikoa izango, ereduaren hainbat hitz kendu edo aldatzea, baldin eta ereduaren zentzua aldatzen ez bada.

21. KONTRATAZIO MAHAIA

Usurbilgo udalak onartutako Kontratazio Mahai Iraunkorreko kideak izango dira.



Usurbilgo Udala



22. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ostean, Mahaiak garaiz eta eraz jasotako dokumentazioa (A kartazala) kalifikatuko du; horretarako, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jardungo du.

Hori horrela A kartazalean konpontzeko moduko akatsen bat atzemango balitz, lizitatzaillearen hiru laneguneko epea emango zaio hori osatzeko. Akatsaren berri berak zehaztutako fax edo e-maila helbidera idatzita emango zaio.

Kontratazio Mahaiak "B" kartazala ekitaldi publikoan irekiko du web orrian zehaztutako egun ordu eta lekuan. Kartazalak (Txosten Teknikoa) ireki eta balorazioaren arduradunari bidaliko dizkio Kontratazio Mahaiak. Honek balorazio txostena bidali beharko dio Kontratazio Mahaiari, proposamen ekonomikoak jendaurrean zabaldu aurretik.

"C" kartazalean aurkeztutako proposamenak ekitaldi publikoan irekiko dira, web orrian kontratatzailearen profilean aditzera emango den egunean. "C" kartazala ireki aurretik, eskaintza bakoitzean, judizio-balio baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioaren berri emango da.

Ondoren, eta beharrezko txosten teknikoak egin ostean, Kontratazio Mahaiak kontratua esleitzeko proposamena egingo dio kontratua egin behar duen Kontratazio Organoari.


Kontratazio Mahaiak eskaintza egokienaren alde egiten duen proposamena dela-eta, proposamena egin duen enpresak ez du inolako eskubiderik izango Administrazioaren aurrean.

23. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio organoak eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztu duen lizitaziogileari ondorengo jarduerak egin ditzala eskatuko dio. Horretarako, hamar laneguneko epea izango du, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

- a) Behin betiko bermea jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria ere bai.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- c) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizen eta ordainagirien kopiak aurkeztea.
- d) GAOko iragarkiei dagozkien fakturak ordaindu dituztelako ziurtagiria aurkeztea.

Egindako eskabidea emandako epearen barruan bete ezean, uste izango da lizitaziogileak bere eskaintza erretiratu egin duela. Kasu horretan, dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitaziogileari. Horretarako, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari erreparatuko zaio.



Usurbilgo Udala



Kontratazio organoak arestian aipatutako hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo bost lanegunetan esleitu beharko du kontratua, baldin eta lizitaziogileak eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta behin betiko bermea jarri badu.

Kontratua perfektionatzeko, administrazio dokumentua sinatu beharko da.

Esleipenduna Administrazio honen aurrean aurkeztu beharko da, kontratua sinatzeko. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du behin betiko esleipenari buruzko jakinarazpena jasotzen duenetik hasita.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratua sinatzen ez bada, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du, eta kaltegalerei dagokien kalte-ordaina eskatu ahal izango dio kontratistari. Aldez aurretik, interesatuak entzunaldia egiteko aukera izango du.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

24. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza Orri hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta aurreikusi gabeko kasu guztietan, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu bateratua onartzen duenak, berariaz dioena beteko da. Era berean, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1908/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua, ere izango da kontuan eta baita 817/2009 Errege Dekretua ere.

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren eta espediente honi erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanen bat baldin badago, Plegu honetan ezarritakoa gailenduko da.

25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren ondorioz sortzen diren auziak kontratazio organoak ebatziko ditu. Kontratazio organoak hartutako akordioek amaiera emango diote administrazio bideari, eta zuzenean aurkatu ahal izango dira administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan. Hala eta guztiz ere, alderdiek haien auziak arbitraje pean jartzeko erabakia hartu ahal izango dute, indarrean dagoen legediak diotenaren arabera.

26.- DATU PERTSONALEN BABESA



Usurbilgo Udala



Kontratazio hau dela-eta, norbanakoen datuak erabili behar badira, kontratistak kontratazio legedian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legeari eta Lege hori garatzen duen araudiari dagokionez.

I. ERANSKINA

AITORPEN EREDUA

Nik,..... jaun/andreak, adinez nagusiak,NAN zenbakia, telefono zenbakia eta fax zenbakia ditudan eta bizi naizen honek, honako hau aitortzen dut: jarduteko gaitasun osoa dudala, eta ez nagoela sartuta Sektore Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehaztutako gorabehera batean ere.

Halaber, honako hau aitortzen dut:

- Indarrean dagoen legediak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ditudala, urriaren 12ko Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusiaren 13. eta 14. artikuluen arabera (1098/2001 Errege Dekretua).
- Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta emanda nagoela, eta zerga horren matrikulan ez dudala bajarik eman.

Eta horrela jasota gera dadin, eta "Usurbilgo Udalaren zergak ikuskatzeko lankidetzeta eta laguntza zerbitzua kontratzeko" lehiaketan dagozkion ondorioak izan ditzan aitorten hau sinatzen dut, 2012ko _____aren _____(e)an.

Sinadura



Usurbilgo Udala



USURBILGO UDALEKO ZERGAK IKUSKATZEKO ETA LANKIDETZARAKO ETA LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.

1.- XEDEA

Honako plegu hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuaren xedea izango da USURBILGO UDALEKO UDAL ZERGAK IKUSKATZEKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA EMATEA.

2.- EDUKIA

1.- Kontratastak ondorengo zereginetarako lankidetzeta eta laguntza eskainiko dio Usurbilgo Udalari: Udalak izendatutako pertsonaren edo pertsonen bitartez, ikuskapen lanak egiteko, eta halaber, udal zerga guztiak ikuskatzeko, eta preskribitu gabeko zerga egitateak aztertu eta agertu izanaren ondorioz egin daitezkeen zerga likidazioak egiteko, baldin eta egitate zergapegarri horiek zuritu ez badira, edo subjektu pasiboak edo zergadunak aitortu duenaren arabera eta administrazioak ikertu eta ikuskatu ahal izan duenaren arabera zuriaketa behar bezala egin ez bada.

Halaber, bidezkoak diren jakinarazpenak, zitazioak, eskaerak eta gainerako agiriak prestatu beharko ditu, Udaleko arduradunak sina ditzan.


2.- Horretaz gain, kontratuaren xedea izango da ondorengo faseetan lankidetzeta eta laguntza eskaintzea:

- Kontratua sinatu den urtean dagoen egoerari buruzko azterketa. Era berean, indarrean dauden Ordenantza Fiskalei buruzko azterketa eta horiek aldatzeko proposamena egin beharko da, baita zerga likidazioen prozedurari eta datuak kontrolatzeari eta eguneratzeari dagokion azterketa eta aldaketa proposamena ere.

- Ekitaldi bakoitzari dagokion ikuskapenari buruzko Planaren proposamena egitea. Dagoen egoerari buruzko azterketaren eta lortutako ondorioen arabera, urteroko Ikuskapen Plan bat proposatuko da, eta bertan, zergapetuei buruzko xehetasunak (edo zergapetuak zehazteko irizpideak), zergak, metodologia, e.a. zehaztu beharko dira. Plan hori dela-eta, Usurbilgo Udalak berariaz baimena eman beharko du.

- Udal zergei lotuta dauden zergapetuak ikuskatzea; horretarako errekerimenduak egingo ditu, eta beharrezkoa den dokumentazioa prestatuko du, zerga likidazioak sorraraziko dituzten egitateak zehaztu arte. Proposamen horiek Udalak zehaztuko duen pertsonaren bidez gauzatuko dira, eta pertsona horrek aktuario gisa jardungo du.

- Egiten diren zerga ikuspenetatik datozen diru-sarrerak kontrolatzeko laguntza eskaintzea. Horretaz gain, ikuskapen-jarduera dela eta egin daitezkeen administrazio errekurtsioak ebazteko proposamenei buruzko txostenak prestatu beharko dira.



Usurbilgo Udala



- Hasitako ikuskapen lanak ondo burutzeko beharrezkoak diren tramiteak bideratzea, eta espedienteak kontrolatzea.
- Ikuskapenerako egin behar diren zeregin eta gestio guztietarako beharrezkoa den aholkua eskaintzea, baita zergadunari arreta eta informazioa ematea ere, bai udalaren bulegoetan, bai bulegoetatik kanpo. Horiek horrela, zeregin horiek direla-eta egiten diren bilera guztietan egon beharko du, eta ikuskapen prozedurari amaiera egokia emateko beharrezkoak diren agiri guztiak prestatu beharko ditu.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoak edo beste edozein motatako errekurtsoak aurkezten badira, Administrazioak erantzuna eman aurretik, hala badagokio, prozeduraren bideragarritasunari buruzko txostena egin beharko du.
- Inplikaturako udal langileak prestatzeko eta trebatzeko ekintzak bideratzea, ezinbestekoak diren zereginak behar bezala burutuko direla bermatzeko.

3- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Enpresa adjudikatariak zerbitzua burutzeko izendatzen duen aholkulariak gai izan beharko du beren eginkizunak euskaraz egiteko eta, esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko du **3. hizkuntza-gaitasuna**.

Hizkuntza-gaitasun hori 48/2009 Dekretuan zehazten diren agirien bidez nahiz berariaz Udalak egindako azterketa bidez egiaztatuko da. Egiaztapen hauei dagozkien ziurtagiriak kontratazio bakoitzeko A kartazalean (dokumentazio administratiboa) sartuko dira.

A kartazalean egiaztapen ziurtagiriak osatuta ez badaude, kontratazio mahaiak adjudikazioa egin aurretik osatzeko eskatuko die enpresei. Honela, txosten teknikoa eskatzeaz gain, kontratazio mahaiak Euskara Zerbitzuari ere jakinaraziko dio euskara maila egiaztatzeko probak egin beharko dizkiela enpresek aurkeztutako langileari. Eta Euskara Zerbitzuak txostena egin arte ezingo da kontratazioan aurrera egin.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak hemen xedatutako hizkuntza-gaitasuna izan beharko du. Zentzu honetan, langile berriekin ere aurretik zehaztu den prozedura bera jarraituko da."

Usurbilgo AEK Euskaltegiak edo Udalak egingo ditu hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko azterketak.

Enpresa adjudikatariak Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du.



Usurbilgo Udala



Beraz, zerbitzua ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatzeko ahalegina egingo du. Hots, enpresa adjudikatariko langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu-jasoleak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Enpresa adjudikatariak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz behintzat emango ditu ezagutzera eta, halaber, elebrietan emango balitu, euskarari emango zaio lehentasuna.

Enpresa adjudikatariak Udalarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango ditu.

Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio baina kontratazioa eragin duen udal lansailaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio organoaren eskutan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko.

